


FLORENTZIO MARKIEGI ETA AZKEN GUTUNAK DUESOKO KARTZELATIK

Idazlan honen hasieran bidezkoa da Florentzio Markiegiren azken gutunak eta hainbat argibide bidali dizkidan Antonio Unzueta aramaioarrari eskerrak ematea. Aspaldidanik nituen paper hauek neure esku eta beste behin ere, elkarrekin izan ginenean, gogorarazi zidan Karmeldarren San Joakim Probintziako artxibozainak, egoki litzatekeela gutun hauek argitaratzea. Hala egiten dut oraingoan, oroipen historikoa gordetze aldera.

Antonio Unzuetak berak Florentzio Markiegiren arrebaren eskutik, Peruko Arekipako komunitatean zegoen eta hainbat urte geroago Liman hil zen Gloria Markiegi Karmeldar Misiolarien (KM) kongregazioko mojaren eskutik, jaso zituen paper hauek.

Oroipen historikoa

Zer da oroipen historikoa? Ez da iraganeko ispiluan begiratzeko hutsa, ezta ikerketa historikoa ere. Justiziaren, etikaren eta pedagogiaren helburua du azpian. Joandako denboraren ikuspegitik lehenagoko ona finkatzea da, okerrak zuzentzea, bidegabekeriaren biktimak ohoratzea, ahaztearen ilunpetik haiek askatzea, lehengo okerretatik ikastea, *historia magistra vitae* delako esaldiaren haritik hori guztia bilatzea da.



Florentzio Markiegi Debakoa.

Iragana, aspalditik datorren historia, gure aurretik bizi zirenen urratsak, ahaleginak, oraingo gure bizitzarako eta etorkizuna eraikitzeko ispilu izango direnak, aintzat hartzea dela esango nuke. Kontzeptu nahiko lausoa. Zer sartzen da horren barruan? Nire iritziz, oroimenean gordetzea merezi lukeen oro. Gertakari gogoangarriak (baita gertakari dramatiko eta tristeak ere), data adierazgarriak, pertsonaia aipagarriak etab. ikusi ohi ditugu oroipen historikoa deritzogun zerumuga horren barruan.

Gertakari dramatiko eta tristeetan ere argi egiten diguten seinaleak agertzen zaizkigu, pertsonaia eredugarriak, halako egoera latzei gizatasunez, duintasunez aurre egiten jakin zutenak. Oroipen historikoaz ari garela, 1936ko gerra zibilera eta gerra ostera begiratzen dugunean, sufrimendua, kartzelak, hilketak, bidegabekeria basatiak, indarraren eta armen legea... ikusten ditugu, baina baita ilun horren guztiaren artean ostarte argitsuak ere, alde bateko eta besteko pertsona askoren portaera jator eta kementsua. Testuinguru horretan ageri zaigu gaurko gure pertsonaia, horko basakerien eta bidegabekerien biktima legez: Florentzio Markiegi Olazabal. Gizon eredugarria arrazoi askogatik, baina batez ere bere gizatasunagatik, politika aldetik aurkariak zirenak errespetatuz bere ideal politiko, etiko eta erlijiosoei eusten jakiteagatik. Gaur egun, herri honen aurrean aspaldi amestutako zerbaitek gauzatze bidean sumatzen dugunean, etapa berri baten atarirantz goazela dirudienean, etorkizunari itxaropen-mezua dariolako sentipena dugunean, ezin ditugu ahaztu horrelako pertsonak.

Begirada arina haren biografiari

Deban (Gipuzkoa) jaio zen 1898ko urtarrilaren 3an. Haur eta gaztetxo zeneko albisterik ez zaigu heldu. Baina lekukoek diotenez, hiru maite-grina hauek biziarazten zuten haren bihotza haurtzaroz geroztik: Jainkoaganako, aberriaganako eta euskara-ganako maite-grinek. Badakigu gazte-gaztetan hasi zela abertza-

le erakundeetan eta katoliko elkarteetan agertzen. 18 urte zituela hautatu zuten bere herriko, Debako, EAJko idazkari, Luistarren Kongregazioko buru zela. Geroago, Batzokiko buru izendatu zuten eta Uri-Buru-Batzarreko idazkari. Berak sortu zuen Debako euskal eskola. Inguru hartan mendigoizale mugimendua indartzen lan handia egin zuen Primo de Riveraren diktadura garaian; era berean Gau Gurtzaileen buru zen une hartan. Espainian Primo de Riveraren diktadura erori ondoren, bigarren Errepublikan etorri zenean, Florentzio Markiegi Debako alkate hautatu zuten. 1936an gerra zibila hasi zenean kargu hori zuen eta EAJko GBBeko kidea ere bazen. Beraz, politikan kargudun edo gidarietako zen gerra zibila sortu zenean.

Benetako liderra zen eta haren hilketa ere abertzaleen lerroetan etsipena eragiteko asmoz bideratu omen zuten Francoren matxinatuek. Hala diote gai hauetaz idatzi dutenek. Iñaki Anasagastik, esaterako, izenburu hau jarri zion bere idazlan bati: “Los fusilaron como escarmiento”. 1937ko urriaren 15eko Duesoko 14 presoek fusilatzeaz ari da; 14 haien artean zen Florentzio Markiegi. Kristau leiala zen eta itxaropenez eta adorez aurre egin zion fusilatze ordu larriari, bere hamahiru lagunei ere adore emanek eta haien bihotzetan kristau-esperantza piztuz, geroago ikusiko dugunez. Bi anaia apaiz zituen: Jose, bera baino 5 urte zaharrago zena, 40 urte zituela 1936ko urriaren 25ean Oiartzungo hilerri ondoan fusilatua; eta Peli, Florentzio baino zazpi urte gazteagoa, gerra zibilaren hasieran lehenengo Iparraldera, Azkainera, eta gero Argentinara ihes egitea lortu zuena. Florentzioren bi anaia apaiz hauek euskal letretan ere egin zuten ahalegina eta aintzat hartzeko moduko lanak utzi zizkiguten.

Nora joan zen Florentzioren familia, hark gerra zibilean Debatik alde egin beharra izan zuenean? Florentzioren emazte Maritxu Garate eta hiru alabak Itziar, Lore eta Nekane Bilbora joan ziren lehen unean, Justo Garate Maritxuren neba zaharrenaren etxera. Bilboko lehen bonbardaketaren ondoren, Areetara alde egin zuten eta pixka bat geroago Lapurdiko Azkainera. Floren-

tzio fusilatua izan ondoren, 1938an, Iparraldean utzi, eta Peli Markiegi apaiza Florentzioren anaia lagun zutela, Argentinara joan ziren. Lehenbizi Necochea hirian kokatu ziren eta geroago Mar del Platan. Zergatik hautatu zuten bizilekutzat Argentina Nekane alaba gazteenak kontatzen du egin zioten elkarrizketa batean. Izan ere, Maritxuren aita, Bergarako semea, Argentinara joan zen 1880 inguruan. Urte batzuk han lan egin ondoren, 1898an Euskal Herrira itzuli zen, Bergarara. Han ezkondu eta lehenengo semea izan zuen, Justo. Familia berriro joan zen Argentinara eta han jaio ziren gainerako hiru neba-arrebak: Kleto, Benito eta Maritxu, gure Florentzioren emaztea. Maritxuk bi urte zituenean Euskal Herrira itzuli zen Garate familia, oraingoan behin betiko. Hortik zetorkion Argentinarekiko lotura Garate familiari, sustrai nahiko sendoak baitzuten han.

Izaera eta pentsaera

Bera nolako gizona zen jakinik, berarengan konfiantza osoa zuten ingurukoek; eta ez beraren familia politikoko kideek soilik, baita Elizaren erakundeen barruan sar daitezkeenek, eta are gehiago, arriskuan zeudekeen arerio politikoen artekoek ere. Ebanjelioko harako arerioak maite izate hori erabat betetzen agertzen zaigu bere bizitzako hainbat unetan. Hona esku artean ditudan paper hauen artean datorren kasu bat:

Jose Maria Eizagirre Debako karlistarik ezagunenetakoa zen. Lehenengo egunetan atxilotu zuten eta Bilbora eramanez "Aranztazu-Mendi" itsasontzi-espetsuek kartzelaturik. Florentzio Markiegi zein zintzo eta ona zen jakinik, lerro batzuk idatzi zituzkien laguntza eske. Honen erantzuna hau izan zen⁸:

Jose Mari maitea: Jaso ditut Urbietak bidaltzen didan zure posta-idazkia, 27an bidali zenidan beste bat eta baita Zubiria adiskideak, ikuskariak, ekarri zizkidan zure goraintziak ere.

⁸ Letra etzanez idatzi ditut paperetan gaztelaniaz dauden eta neure erara euskaraz jarri ditudan atalak.

Zure etxeoak ongi daude, baita posta-idazki bat bidali zidan Jose Manuel Esnaolaren etxeoak ere. Matxinatuak herrian sartu zirenez gero, ez dakit han gelditu zirenez ezer. Damu dut neure gurasoak hona ekarri ez izana, herria hartu dutenek gure jendeari ematen dioten tratuaz albiste ezin txaragoak baititut. (...)

Nire gurasoekin zer gertatuko zen ez badakit ere, erlijioso batzuen bidez jakin dut, Aita Agirre [Jesulaguna] atxilotu egin zutela, bost egun egon zela Azpeitiko kartzelan, gero Iruñera eta geroago Kanarietara eramana izan zela. Baditugu beste herri batzuetako albisteak ere; hauek CNTkoek baino geiago biltzen dute; laikoak nabiz apaizak biltzen dituzte. Apaiz eredugarriak, esaterako, Lekuona, Albizu, Legarra, Ariztimuño etab. Donostiako fusilatuak 100tik gora dira; Andoainen 24; Billabonan 21; eta horrela beste herrietan ere. Erreketek militarrek eta falangistak baino hobeki portatzen direla diote eta balaxe da. Desberdinak dira; arraza kontua izango da. Nik, atzoko eta gaurko albisteetatik ateratzen dudanez, nire anaia maite Jose galdutzat ematen dut. Lehenengo Arrasateko artzapezarekin batera Gasteizera eraman dute eta gero Donostiara. Hau ziurtaturik dagoen albistea da eta baien fusilatzea zurrumurrua da oraindik. Hau benetan tristea da!

Hau esan nahi izan dizut kontura zaitezen atxilotuen aldeko lana eragozten dutenak indarrez sartu direnen jokaerak direla. Ni neure aldetik, beti bezala, prest nago abal dudana egiteko, arerioak edo adiskideak diren begiratu gabe, gorroto nauzuen edo maite nauzuen begiratu gabe, baina nik une honetan egin abal dudana, ziur asko zuk uste dezakezuna baino hainbat gutxiago izango da.

Jainkoagan sinesten dut eta badakit neure egintzen kontu eman behar diodana. Haren aurrean merezimenduak egin nahi ditut. Hau da nire ardura nagusia. Beraz, nire laguntza izango duzu, neure arteko guztiak fusilatu dituztela jakin arren, eta zenbat eta handiagoa den nire zoritxarra, handiagoa izango da zuen alde dudana; izan ere, zoritxarpean zenbat eta estuago, orduan eta emanago nago Jainkoari eta karitatea egiteko gertuago.

Besterik ez, goraintziak guztiei eta bar ezazu maite zaituen zure adiskidearen besarkada. F. Markiegi.

I. O.: Une bonetan ziurtatu didate Jose nire anaia maitea fusilatua izan dela. Hau nabigabea! Jainkoak barka diezaiela nik barkatzen diedanez. Ene guraso gaixoak!

Markiegik bete zuen bere hitza eta lortu zuen Eizagirrenen askatasuna eta ez bakarrik hori, lanpostua ere aurkitu zion. Honek beraren alde egindako guztia eskertuko ziola zirudien. Izan ere, orduan Areetan bizi zen Florentzioren emaztea bisitatu zuen eta, gainera, une hartan Deban bizi zen bere emazteari gomendatu zion hiribilduan gelditu ziren Markiegiren gurasoei esker oneko bisita egiteko.

Dena dela, Markiegi atxilotua izan ondoren Francoren auzitegiak heriotzara kondenatu zuen. Deban erakunde eta pertsona askok, pentsaera eta politikako kolore askotakoek, sinadurak biltzeari ekin zioten Markiegiren bizia salbatzeko. Florentzioren arreba, Eizagirrenen etxera beronen salbatzailearen aldeko sinadura eskatzera joan zitzaionean, honek esker txarra agertu zion eta behin eta berriro eskatu arren, ez zion sinadurarik eman eta, gainera, esan zion egiaz Florentzio izan zela berari bizia salbatu ziona, baina ez zekiela bera ez ote zen izan atxilotu zuena ere. Markiegi fusilatua izan zen eta Deban hileta-elizkizuna egin zenean, Eizagirre koruan kantatzen izan zen eta familiari 5 pezetako ordainsaria kobratu zion haren hiletan kantatzeagatik...

Arerioak nola errespetatzen zituen eta haiei nola laguntzen zien ikusteko jo dezagun pixka bat atzera. Esan dugu 1936ko uztailako altxamendu militarra, Florentzio Markiegi GBBeko ki-dea zenean eta Debako alkate karguan zegoenean gertatu zela. Altxamendu horrek han eta hemen ereiten zuen izua eta eragiten zituen triskantzak eta hondamendia ikusirik, lehen neurri bezala badaezpada, lehenengo uneetan, Debako faxista ezagunenak eta hango hondartzan uda igarotzera etorritako kanpotarrak atxilotzeko agindu zuen. Hasieran udaletxean prestatu zie-

ten gordeleku segurua atxilotuei eta gero Abasolo jauregian. Gerroago Loiolako Amenabar hotelera eramán zituzten; hau zen EAJko gudarostearen kuartela kokatu zen lekua ere.

Gipuzkoa faxisten mende zegoenean, Tomas Rodriguez Egaña (frankistek fusilatua Donostian 1938ko otsailaren 11n) abertzale kementsuari esker eragotzi ahal izan zen herrikoak ez ziren zenbait inkontrolatuk Barrena botikari jaunaren eta apaiz ezagun baten aurka egin nahi izan zuten mendeku-ekintza. Hori egiterik ez zutela eta, Abasolo jauregia bortxatzera joan ziren, baina F. Markiegik aurre egin zien eta bertan behe-ra utzi behar izan zuten ekintza hori ere.

Dena dela, egun irabiatu haietan ez zen erraz indarkeriazko ekintzak, hilketak eta basatikeriak erabat saihestea. Esaterako, hala gertatu zen Deban, bera Donostian zegoela, zenbait inkontrolatuk Jose M. Alzibar Itziarko apaiza eta Antero Morillo udatiar faxista atxilotu eta hil zituztenean. Markiegik ez zuen onik izan harik eta gorpuk aurkitu eta haiei kristauki lurra eman arte; eginahalak egin zituen, gainera, hiltzaileak atxilotu, salatu eta merezitako zigorrik gabe gera ez zitezen. Inguruko estremista batzuk ere harriturik eta ezin ulerturik zeuden hark arerioei laguntzeko zuen arduragatik.

Deba matxinatuen militarrek hartua zegoenean, bostehun herritar baino gehiagok utzi zuten hiribildua Bizkaian gordeleku bilatzeko. Ia guztiek jo zuten berarengana laguntza eske, eta guztiei ematen zien berak ahal zuena, bakoitza zein alderditakoa zen begiratu gabe. Sarri bisitatzén zituen zaurituen ospitaleak, Debako seme-alabei laguntzeko asmoz.

Anaia galdu zuela esan dugu. Jose Markiegi Arrasateko apaiz laguntzailea zen eta 1936ko urrian fusilatu zuten frankistek Jose J. Arin Arrasateko artzapeza eta Leonardo Guridi apaiz laguntzailearekin batera. Haien atxiloketa bertako beste apaiz laguntzaile bati, Bilbon Larrinagako kartzelan zegoen Luis Dolara jaunari, egozten zioten. F. Markiegik adiskide mina zuen

hango segurtasun burua eta eztabaida bizia izan zuen honekin, hau harriturik uzteraino, Markiegik arerioen aldeko eskari ugari egiten baitzizkion. Anaia fusilatuaoren oroipena berri-berri zuela, haren salatzailearen askatasuna lortu arte ez zion bake-rik eman funtzionarioari...

Elizaren inguruko erakundeek ere konfiantza oso-osoa zutela harengan esan dugu gorago. Hona hori ezin argiago erakusten duen gertakari bat:

Errepublikako gobernuak Jesulagunak Espainiako mugetatik kanpora bidaltzea erabaki zuenean, horren berri izan eta berehala joan zen gure gizona Loiolara. Santutegira heldu zenean, "Jainkoak bidalia bezala zatoz" esan zioten Loiolako Jesulagunen buruak eta Azpeitiko alkateak. Izan ere, estu eta larri zeuden arazo larri bati zein irtenbide eman ez zekitela. Markiegik santutegi hura utzi eta etxerantz abiatu zenean, San Ignaziok erabili ohi zuen giltza eta haren beste erlikia batzuk zeramatzan aldean. Beste erlikiak hauek ziren: Santuaren burezurra, hatz bat eta odola. Inolako eskakizun edo baldintzarik gabe, konfiantza osoz, utzi zituzten haren esku gorde zitzan. Halaxe egin zuen sekretu handian gordeta edukiz, harik eta altxamendu militarren ondorioz hiribildutik alde egin beharrean izanik, Jesulagunen oniritziak, beste leku seguru batera eramane zituen arte.

Haren gutunetan garbi ikusten da debar honen aldartea. Ez zen liburuetakoa intelektuala, ekintzako herri-gizona baizik. Bere herriaren eta herritarren zerbitzuan ahaleginean ari zen gizona ageri zaigu lekukotasun guztietan. Baina, guztiaren gaitetik, gizon erlijiosoak, laiko militante oso-osokoa. Paper haue-tan "martiri" hitza ere ageri da haren azken une eta heriotzaz hitz egitean.

Emazteari idatzitako gutunetan, hasieran, iluntasun eta gerrateko zoritxar artean, itzaropena agertzen du, bizi nahia eta egunen batean berarekin eta etxeko guztiekin berriro biltzeko ustea:

Gerra hau amaituta berriro elkartzen garenean, zein zoriontsu izango naizen etxean!

Nabitaetz ezarri diguten gerra honek bibotza biguntzeko moduko gauzak erakusten dizkigu. Zenbat emakume gaixo ikusten diren beren umetxoekin nora ezean, non sartu ez daikitela, etxea hondakin-multzo biburtu dietelako eta ezer gabe goian zerua eta behean lurra geratu direlako!

Guk geuk ere horrelako bi familia ditugu etxean. Janaria eta ohea ematen dizkiegu.

Zer pena eman didan gaur goizean, gu gosaltzen ari gine-la, neska koskorra etorri denean sukaldera gosaltzen erabilita-ko ontzi eta mahai-tresnak zekartzala! Pixka bat lotsaturik eta era berean esker onez zegoenaren itxura ageri zuen aurpegie-ran. Orduan pentsamenduak zuengana eramanean nau. Eman eskerrak etengabe Jaunari, horretarako motibo ugari dugu-eta. Tristeia da elkarrengandik urruti egotea gu gauden bezala, baina hori ez da ezer Jainkoari deika eta Aberriaren zorione-rako borrokan ari garen ordu larri honetan ikusten diren koadroekin konparatuz gero.

Zenbat emazte geratu diren alargun! Zenbat guraso hil di-ren beren haurrekin batera suntsituriko etxe-hondakin artean! Zenbat hurrek galdu dituzten gurasoak eta zenbat gurasok semeak! Jainkoak gure herri hau guztietatik debotoena egin nabi duela dirudi, askatasunerantz eramateko.

Berarengan sinesten dugunok geure abalbide guztiak agor-tu arte aurrera egitera behartuak gaude. Niri dagokidanez, proba honen ondoren, ezeren damurik izatekotan, gebiago egin ezarena izango da... Bien bitartean, zuk, edo hobeki esateko, zuek otoitz egin; eta nik (guk) otoitz egin eta lan egin dezagun Euskadi Jainkoarena izan dadin.

Gudarien ondoan egon nahi zuen azken unera arte. Bilbo erori baino egun batzuk lehenago, Debako adiskide batek gal-detu zion zer egin daitekeen arerioak gainean ziren-eta. Mar-kiegik erantzun zion ohiko baretasunez: Nik behintzat ez dut Bilbotik alde egingo azken gudaria irten arte.

Eta matxinatuak Bilbon sartzen ziren egun berean, hiriburuan zeuden gidariak ebakuatzeko auto-gidariak inguratua zegoen hirian sartu nahiezik zeudela, Markiegik berak bere automobilaz egin zituen hainbat ostera eta bertan behera utzitako hirian sartzea debekatu zutenean, lasa-lasai joan zen EAJko goi-karguak, bere lagunak, zeuden lekura.

Une honetatik haren bizitzan etapa berria hasten dela dirudi. Baina ohiko baretasunez iraungo du proba latzei aurre egin ez. Bere emazteari idazten dio Santandertik. Beraren gutuna jaso duela diotso albiste tristeekin; berriro irakurtzeko gogorik gabe geratu dela. Gurasoengatik, alabatxoengatik galdetzen dio. Albisteen zain dagoela, baina beldur dela bere bihotzak leher ez ote duen egingo nahigabearen nahigabez.

Zure azken gutuna irakurri ondoren, zenbat gau igaro ditudan lo egin ezinik! Eskerrak Jainkoagan sinesten dugun...!

Jainkoarren eskatzen dizut egin ditzazula ahaleginak lasai egoteko. Gogoan izan oraindik nire tokia hemen dagoela; ez dugu inolako arriskurik. Egunez egun egoera kontrolpean dugu eta azken unerako guztia dago prest. Zer gehiago nahi zenuke? Horra joatea? Bai neuk ere! Baina joan eta gero damutzekotan, ez. Jaso bihotza Jaunagana eta eska iezaiozu pazientzia. Orain arte egin dugunaz harro gaude; gauzak ongi egin ditugu.

1937ko abuztuaren 1ean idatzi zion emazteari beste gutun bat. San Ignazio eguneko elizkizuna Laredoko elizan, oroipen tristeak etab. Kontatzen dizkio.

Atzo San Ignazio eguna. Jai handia eta hala ospatu genuen. Goizean Laredoko parrokan bildu ginen; 10etan meza nagusia izan genuen, bitzaldia euskaraz eta hilen aldeko errespondua, "libera me" hunkigarria eta azkenik, San Ignazioren martxa. Zeremonia bihotza hausteko erakoa zen. Zenbat oroipen triste! Gudarien jaunartze hura. Jendetza bete-betea 10etako mezan. Meza nagusian, E.B.B.eko buruzagientzat ziren eserlekuen ondoan, ni nengoen lekutik burbil, 4 edo 5 emakume gazte zeu-

den belauniko erabateko dolu-jantziz. Meza bitartean bebin bakarrik jaiki ziren, “libera me” kantatzen zen unean, bestela beti belauniko; negarrik ez egiten saiatu ziren arren, ezin izan zioten negarrari eutsi... batez ere sermoiaren une batzuetan eta “libera me” kantatzerakoan... eta urte eta erdi inguruko neska txiki bat “aita, aita” oibuka hasi zenean, neuk ere ezin izan nien eutsi malkoei. Nor falta zitzaien beltzez jantzirik zeuden emakume gazte haiei? Senarrak? Non zegoen txikitxo haren aita? Hainbeste dira bizitza honetatik joan direnak!

Jaunari eskatzen diot albait lasterren amaitu dadila gerra hau, eman diezagula etxean geure txikitxoekin zoriontsu bizi izateko grazia; gure senitartean zoritxar gebiago jasan gabe, oraindik bizirik gaudenok berriro elkar ikusi eta besarkatzeko zoria izan dezagula.

Asko pozten nau Jainkoaren grazian nagoela eta zuk eta gure neska txikitxoek maite-maite nauzuela jakiteak. Zer dago hori baino gauza ederragorik munduan? Bizi gaitetzela urte askoan Jainkoaren aintzarako eta gure eta Euskadiren zorionerako.

Atzo zirrara biziak izan nituen, eta ez zen gutxiagorako. Kaperan sartu ginen han aitor-entzule bat zegoelako. Eta zain geundela, San Frantziskoren irudia ikusi genuen besoak hautsita; gainera, tiroak zituen, bat bularrean, bi aurpegian. Beste santu bat ere apurtuta zegoen eta beste basatikeria asko ikusi genuen. Eta hori Laredon, azken hauteskundeetan eskuindarrak garaile izan ziren herrian. Usteldutako herria da. Atzo elizara gindoazela, gu ikustean, batzuk lotsatu egiten ziren, beste batzuek (gorriek) ez ikusiarena egiten, eta pertsona onek inbidiaz begiratzen ziguten; gurekin etortzeko gogoa zuten, baina zigortuko zituzten beldur ziren, guk handik alde egin eta bakarrik geratzen zirenean. Basatikeria haiek egin zituztenak herrian gelditzen ziren bitartean, guk elizkizun ederrak ospatzen genituen. Jainkoak kontuan izango du bere aintzarako egiten dugun guztia. Bai horixe!

Egun batzuk geroago, San Ignazioen hitz haiek gogorarazten zizkion bere emazteari. Zer aurreratzen du gizakiak mun-

du guztia irabazita ere, bere arima galtzen badu? Hitz horiek gogoan ditudala, inoiz baino bizikiago sentitzen dut adiskideei eta baita arerioei ere on egiteko gogo.

Duesoko azken egunak

1937ko abuztuaren 28an Santoñako Duesoko kartzelan sartu zuten Florentzio Markiegi. Argi dago frankistek ez zutela errespetatu Santoñako hitzarmena. Haiek, italiarrak lagun zituztela, Kantabria aldean aurrera egin zutenean, Euzko Gudarostearen zati handi bat Santoñako badia inguruan atzerantz bildu zen. Han, aurretik zetozen tropa italiarren buruzagiekin hitzarmena sinatu zuten. J. Ajuriagerra zen errenditze negoziatioetan ari zena. Jose Antonio Agirre lehendakariak ez zuen haietan esku hartu, hau iparraldeko frontean guduan jarraitzearen aldekoa baitzen. Baldintzen artean, atxilotuen bizia errespetatzea eta arduradun edo gidari politikoentzat atzerrian babesa bilatzeko eskubidea zeuden. Errenditzea burutu eta gudariek armak entregatu zituztenean, frankistek kapitulazioari uko egin zioten eta Euzko Gudarosteko gehienak Duesoko kartzelan sartu zituzten. Gero, nola-halako juizioak egiten hasi ziren gerrako auzitegiak hartarako eraturik.

Duesoko kartzelako gela higuingarrian igaro zituen gure gizonak bere bizitzako azken egunak fusilatu zuten arte; hilabete eta hamazortzi bat egun guztira. Hango kapilauak biziki goratzen zuen; berak bazekien haren barne-egoera eta portaeraren berri, penitentziako sakramentuan sarri entzuten baitzion. Florentziori buruz esan ohi zuen, preso guztien artean atentzioa ematen zuela seriotasun eta bildutasunagatik. Harekin harremana izan zuen eta ongi ezagutzen zuen jesulagun batek esana da Florentzio kristau-irakaspen bizia zela ezkongabe, ezkondu, senitarteko eta politikako gidarientzat. Atxilotua izan eta laster, frankisten auzitegi aurrean aitortu zuen bera jaiotzaz gero euskaldun abertzalea zela.

Berarekin bizi zen batek zioenez, handik bizirik irteteko inolako itxaropenik gabe etsita zegoenean, bere baitan bilduta agertzen zen deboziozko liburua eskuetan zuela, heriotza hurbil eta ziurrerako prestatzen. Lagun horrek oraindik itxaropen-izpi bat bazela eta bihotza jaso eta gogoia piztu nahi izan zion, asko zirela egoera berean zeudenak eta guztiak ez zituztela hilko esanez... Berak erantzun zion: *ez dakit besteen zoria zein izango den, baina ni neu behintzat oso-osoan sinetsirik nago zortzi egun barru Jaungoikoarekin izango naizela.*

Baretasun eta lasaitasun handia erakusten zuen unerik larrietan ere. Gerrako gorabehera irabiatuen artean zebilenean ere, igandero Jauna hartzen zuen eta Bilbon kokatu zenez gero, egunero, fusilatua izan zen arte.

1937ko urriaren 14an, gaueko 9etan gutxi gorabehera, haren gelan sartu ziren soldadu batzuk. Gelatik atera zutenean, bare-bare agur egin zien lagunei *gero arte* esanez. Izan ere, bazekien haiek ere zori bera izango zutela... Biharamunean hilko zutela esan zioten eta aparteko gela batean sartu zuten heriotza-zigorrera kondenatuak zeuden sei komunistarekin batera. Hauek egon ezinik eta guztiz urduri zeuden. Florentziok hitz egin zien eta fededun izateak eta kontzientzia garbiak une hartan ematen duten lasaitasuna adierazi zien. Otoitz egingo zuela guztien alde eta arrosarioa atera eta debozio handiz erreztatu zuen berak bakarrik. Haren hitz eta errezoek ez ziren alferrika-koak izan, geroago ikusi zenez, marxista haiek Penitentziako eta Eukaristiako sakramentuak hartuta, kristauki hil ziren-eta.

Florentzio Markiegirekin batera beste hamahiru fusilatu zituzten 1937ko urriaren 15ean, Santa Teresa egunean, ez guztiak talde politiko berekoak, hainbat talde eta sindikatutakoak baizik: Ramon Azkue (BBBeko burukide ohia eta Euzko Gudarosteko burua), Florentzio Markiegi (Debako alkatea eta GBBe-ko burukidea), Jesus Zabala (Begoñako Euskal Gaztediaren burua eta Bizkaiko STVren arduraduna), Jesus Ibarbia (Gipuz-

koako STVren burua), Felipe Markaida, Tomas López Otamendi, López Uranga, San Migel komandantea U.G.T. batailoikoa, Isidro Nieves Malatesta batailoikoa (sindikalista), Manuel Natividad, Francisco Rabaneda, Andres Subtil, Federico Sánchez, Martín Ramos.

Goizeko 7etan utzi zuten kapera, *Berria* hondartzarantz abiatzeko. Baretasunez eta pauso irmoz. Florentzio lasai eta irribarrez zihoan. Entzun zion lekukoaren arabera, urtebete lehenago fusilatua izan zen bere anaia apaizari hau esan zion, erregu antzera: “Joseba maitea, Jaungoikoaren aingeruak bidali niri bidean laguntzera eta berehala zurekin naiz”. Pelotoiari pixka bat aurreraturik, azkenekoz eskatu zion kapilauari abso-luzioa eta hitz batzuk esan zituen guztiei barkamena eskainiz. Gero, kapilauari eta bere lagunei begira esan zuen: POZIK HIL-TZEN NAIZ, EUZKADI NEURE ABERRIAREN ALDE BIZIA EMATEN DUDALAKO, ETA ORAINTSU ARTE BIDE GALDUAN ZEBILTZAN ARIMAK BETI-BETI JAUNGOIKOA GORETSIKO DUTELAKO.

Ez zituzten onartu begiak estaltzeko loturak eta koñak kopak, une goren hartarako desegoki iritzita. Soldaduak apuntatzen hasi ziran eta une hartan oihu egin zuen: GORA EUZKADI ASKATUTA. JAUNGOIKOAGAN BAKARRIK LOTUTA! Gero besoak gurutzatu eta eskuineko eskuan arrosarioa zuela, hunkiturik zeuden piketekoei esan zien: “Ahora podeis tirar” eta GORA EUZKADI ASKATUTA eta fusilen tiroak bat-batera entzun ziren. Martiri bat hil zen eta santu bat jai.

Euskarazko gutunak

Paper hauen artean agertzen diren Duesoko azken gutunak daude soilik euskaraz. Hauek fusilatze egun berean, ordu batzuk lehenago, idatziak dira. Gaztelaniaz ere agertzen dira. Hauek baino lehenagoko gutun guztiak gaztelaniaz daude, baina ohar batean dio hauen originalak euskaraz daudela.

Euskarazko azken orduko hauek, nik dakidala, ez dira oraindik argitaratu inon; beraz, lehenengo argitaratzen direlakoan agertzen ditut *Karmel* aldizkariaren zenbaki honetan:

Dueso 15-10-37

“Maritxu maite-maitea: ordu gutxi barru donokira noa, Jaungoikoak bere besotan artuko nauan uste oso-osoakin, maitien zindudanian eta zurekin eta gure txikiakin bizitzeko poza aundien zanean. Jaungoikoak berak daki zer egiten duan eta bere naia egin bedi. Idazteko astirik ere oso gutxi utzi didate. Gure aurtxoak Jaungoiko bidetik azitzen jakin dezazun, gure Jaunari eskatuko diot. Gure odol au ez da alperrik izango, zuek utzitzeak ituntzen nau, bestela mundu ontatik alde egiteko aurrez ordua jakitea... orixe Jaungoikoak eman lezaken eskerrik andiena, eta neri eman dit. Muxu asko eman nire eta zure Itziartxo, Lore, Nekane... ezin jarraitu det. Bai maite zaituztedala... zerutik lagunduko dizuet... Agur, Maritxu, agur, agur, txikitxuak... Gora Euzkadi Askatuta, Jaungoikogan baka-rik lotuta. Maite-maite zaitu zure

Polentzi”

“Nire txiki maiteak: Jesustxogana noa, ez zuek maite etzaituztedalako, baiña Berak nai du ni Berakin bizitzea. Zuek beti maite-maite izan Jesus, amatxori ez penarik eman eta lagundu beti amatxori, eta triste dagonian alaitu ezazue. Biotzeko txikiak, artu nire muxu xamur-xamurrak. Zerutik maite-maite izango zaituztet, zuen

Aitatxo”

“Debar Jeltzaleak: Jaungoikoagatik aberriari nekeak eskeiñi ondoren, neke oien saritzat ona eriotz ederra. Zer gehiago eskatu leike sinismendun gizonak? Nire sendi maiteak, emazte eta aurtxoak... gurasoak... oien oroimenak itunduko ez balu, zein egun alai gaurkoa... Asitako bidean jarrai zintzo mutilak, gaiñera aurki Euzkadi aske... Zuek aberriarentzat eta aberria Jaungoikoarentzat. Ni banoa eta zuek gelditzen zerate. Zintzo bada eta dana Jaungoikoaren izenean. Agur

Polentzi”

“Agur burukide maiteak: Sei gorriekin nago 50 garren gelan. Eskatu det zuekin atzenengo agurtza esaten uzteko baiña ezin nunbait. Gorri auek bigundu nai nituzke; esan diotet (eta ikusten dute) sinismenak ematen didan indarra une auetan; errosarioak eskuan ditudala agurtza esan det bakarrik; nik uste det bigunduko dirala. Jaunak nai dezala. ‘Gu Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat’ gure ikurritza. Jaungoikoak neri, nik merezi ez añako eriotz ospatsua eman dit! Au zoriona! Aberriarentzat ongarri danari aurrez aurre. Apaizaren zai nago irrikatzen. Zuen txanda iristen bada, ez beldur [izan], Jaungoikoak indar aundia ematen du. ‘Gu Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat’. Gora Euzkadi Askatuta Jaungoikogan bakarrik lotuta.

Polentzi”

“Axuria: En tí despedimos a todos: estamos contentos y alegres porque hemos confesado, oído la Santa Misa y comulgado los 14. ¡Qué hermosura!

Markiegi y Azkue. Dueso 15-10-37”

“Peli! Nire sendi gaztea nola gelditzen dan begira... Guraso gizajoakin ez aztu. Jaungoikoak lagun dezuela.

Polentzi”

“Aita, Ama!... Jaungoikoakin egongo naiz ordu gutxi barru, Jose an arkituko det. Aita, Ama! Gero arte... Kontxita, Karmele, Aintzane. Agur, banua, otoi nire alde eta nik zuek gatik ur-urretik eskatuko diot; osaba, izeba, Ricardo, Felipe eta gaiñerakoak... agur. Ez nigatik negarrik egin, ni ondo nua. Maite maite zaitue

Polentzi”

“Joseba maitea, Jaungoikoaren aingeruak bidali neri bidean laguntzera eta beriala zurekin naiz.

Polentzi”

“Querido Julián: Rogaré a Dios por tu felicidad y tú trabaja por la Patria en Dios. Agur Julián. Sé bueno que no te pesará.

Polentzi”

“Atzenengo une auetan 6 gorrirekin sartu naute; kapillara-ko deiaren zai nago irrikatzen. Nai nuke auek ondo iltzera iris-te; esan diotet ni zein trankil nagoan sinismena detalako. Euren aurrean errosarioak agirian agurtza esan det bakarrik, ikusi dute; uste det bigunduko dirala. Ai alako bat!

Dueso 15-10-37”

“Maite-maiteenak: Agur Donokian alkartu arte... otoitz eta orain arte bezela on-onak izan... Zuen

Polentzi”

“Nere sendi maitea: Jaungoikoaren erabakiak beti ontzat artu eta ez aspertu Bera maitatzen, eta aberriaren alde beti zintzo.

Polentzi”

“Nere alde egin duten daneri nere esker ona. Nere kaltez iñork ezer egin badu, biotz-biotzetik barkatzen diot; zuek ere barkatu, ez iñor gorrotatu bein ere, etzaizute damutuko eta.

Polentzi”

“Maritxu, Donokian alkarganatuko gera betiko... an itxoin-go dizut. Zure-zurea

Polentzi”

“Agur danori, maite-maiteak otoitz; ludi ontako azken mu-xua emen eman dizuet.

Polentzi

Dueso 15-10-37”

Azken gogoeta

Paper eta interneteko idazlan batzuen laguntzaz jarraitu diogu Florentzio Markiegiri beronen ibilbidean. Pertsonaia interes-garri bat agertu zaigu hor, ezagutzea merezi duena. Gizon har-ri-garria, bere herria bihotz-bihotzez maite zuena, Jainkoaren presentzian, haren borondateari erabat atxikia bizi eta hil zena. Euskaldun honen ibilbidea pixka bat aztertuta, Duesoko honen

azken egunei erreparatuta, idatzi zituen gutunak irakurrita... martiri eta santu baten aurrean gaudela iruditzen zaigu. Izan ere, gure Herriaren urte horietako sufrikarioa agertzen zaigu berarengan eta drama horren aurrean hemengo hainbat pertsonak erakutsi zuten portaera eredugarria.

Bat-batean beraren garaiko eta giro bereko beste hainbat etorri zaizkit oroimenera. Esaterako, euskal literaturan eta kulturaren oso sartuak zeudelako, Jose Ariztimuño “Aitzol” eta Esteban Urkiaga “Lauaxeta” jende gehienarentzat ezagunagoak dira. Badira isilean erdi ahazturik geratu direnak, baina heriotzaren aurrean sekulako giza maila eta kristau-maila erakutsi zutenak. Esaterako une honetan, apaiz eta erlijioso ugari gainera, Artibai aldeko bi laiko hauek ditut gogoan: Hilario Aretxabaleta markinarra eta Bonifazio Egurrola Ziortza-Bolibarko Agarre baserrikoa. Hauek ere badakit, fusilatutak izan aurretik, gutun hunkigarriak idatzi zituztela; Florentzio Markiegiren gutunen hari berekoak edo oso antzekoak.

Luis Baraiazarra Txertudi